



# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2021ko ekainak 22**

**Vitoria-Gasteiz, 22 de junio de 2021**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### GOBERNU KONTSEILUAK ARGI BERDEA EMAN DIO LAGUN EGITEKO ANIMALIAK BABESTEKO LEGE PROPOSAMENARI

- **Arauk jabeen betebeharrak ezartzen ditu eta erakunde publikoek animalien zaintzari dagokionez duten zeregina finkatzen du**

Konpainiako animaliak babesteko lege-proposamena aintzat hartzearen aldeko irizpidea adierazi du gaur Gobernu Kontseiluak, indarrean dagoen legea eguneratzen eta hobetzen duelako eta gizartearen eskaerei erantzuten dielako. Halaber, uste du ekimenak Euskadi Europako gizarte aurreratuenen buruan kokatzen duela, betiere lagun egiteko animaliak errespetatzeari eta babesteari eta animalia guztien tratu onari dagokionez.

Gasteizen egindako asteroko bileran, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio legearen xede diren animaliak zehazten dituen ekimena aintzat hartzeari, hau da, konpainiako animaliak. Ekoizpenekoak eta errentakoak eta araudi propioa dutenak ez dira honetan sartzen. Ildo horretan, lege proposamenak konpainiako animalien jabeen betebeharrak ezartzen ditu, eta berariazko zehapen-esparru bat ezartzen du. Gainera, herritarrak animaliei zor zaien errespetuaren eta babesaren inguruan hezteko eta sentsibilizatzeko ekintzak sustatzen ditu.

Erakunde publikoek animalien zaintzari dagokionez duten zeregina ere aipatzen du arauak, eta ez du uzten animaliak bilketa-zentroetan hiltzen. Era berean, gobernantza indartua, lankidetzakoa eta orekatua sustatzea aurreikusten du erakunde publikoen artean, batez ere udalen eta Foru Aldundien artean, Legeak adierazitako betebeharrei erantzuteko.

Lagun egiteko animalien abandonua ere aurreikusita dago Lege Proposamenean, eta horren jarraipena egitea eta zigorrak ezartzea aurreikusten du. Horrez gain, guneko zoologiko publiko zein pribatuen betekizunak eta baldintzak mugatzen ditu, eta eginkizun garrantzitsua ematen die albatariaren kolektiboari.

Lege proposamenak hainbat alderdi berritzaile jasotzen ditu animalien defentsari dagokionez. Besteak beste, identifikatu eta erregistratu beharra, animalia horiek zirku ikuskizunetan eta azoketan erakusteko debekua edo maskotak erakusleiko komertzialetan erakusteko debekua. Era berean, udalek animalientzako guneko egokiak izan behar dituztela aurreikusten du.

## Ekonomia eta Ogasuna

**COVID-19aren ERAGINPEAN DAUDEN SEKTOREEI 270 MILIOI EURO INGURUKO ZUZENEKO LAGUNTZAK EMANGO ZAIZKIE ETA LAGUNTZA HORIEN BIDEZ 173 JARDUERA EKONOMIKO ESTALIKO DIRA**

- **Eusko Jaurlaritzak 78 JESN (jarduera ekonomiko) gehitu dizkie Estatuak ezarritako 95 JESNei, eta 50 milioi euroko aurrekontua gehitu die hasieran aurreikusitako 218 milioi euroei**
- **Deialdia uztailaren 5ean irekiko da eta eskabideak aurkezteko epea uztailaren 30era arte luzatuko da**
- **5/2021 Errege Dekretuak ezartzen duenez, laguntza horiek ordaintzeke dauden zorrak estaltzeko soilik erabiliko dira**

Gobernu Kontseiluak onartu du Covid-19aren eraginpean dauden enpresen eta autonomoen kaudimenari laguntzeko zuzeneko laguntza finalistak kudeatzeko aginduari bide emango dion dekretua. Euskal Autonomia Erkidegoan, laguntza horiek gutxi gorabehera 270 milioi eurokoak izango dira —218 milioi euro Estatuko funtsekin finantzatuak eta 50 milioi euro Eusko Jaurlaritzak jarritakoak—. Laguntza horiek 173 jarduera ekonomikori zuzenduko zaizkio, 78 JESN jarduera ekonomiko berri gehitu baitzaizkie Errege Dekretuan jasotako 95 JESNei. Kalkulatzen da gutxi gorabehera 35.000 onuradunek jaso ahal izango dituztela laguntzak.

Ekonomia eta Ogasun Sailak datorren uztailaren 5ean irekiko du deialdia, eta uztailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Jasotako eskabideak abuztuan aztertu, eta lehen ordainketak irailean iritsiko dira. Tramitazioa arintze aldera, 3 linea ezarri dira; horietako bi tramitazio arinagokoak izango dira, eta deialdian zehaztuko dira horien xehetasunak.

Pertsona edo erakunde onuradunek zenbait konpromisoa hartu behar dute: laguntzekin lotzen den jarduerari eustea, 2022ko ekainaren 30era arte gutxienez; 2021ean eta 2022an dibidendurik ez banatzea; eta goi-zuzendaritzako ordainsarrietan gehikuntzarik ez onartzea, laguntza ematen denetik bi urteko epean.

### **Laguntzen baldintzak**

Espaniako Errege Dekretuak ezartzen duenez, laguntzak finalistak dira, eta 2020ko martxoaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean hornitzaileekin eta bankuekin sortu diren zorrak ordaintzeko emango dira, zehazki 2021eko martxoaren 13aren aurretik sinatutako kontratu-konpromisoen ondorioz edo hornidura-akordioen ondorioz sortu eta 2021eko maiatzaren 31n oraindik ordaindu gabe dauden zorrak izango dira. Ezartzen denez, laguntzak erabiltzean, lehenik eta behin, hornitzaileei ordaindu beharko zaie, eta beti fakturen jaulkipen-datak ezarritako antzintasunaren arabera; gero, banku-zorra murriztuko da

(abal publikoa duen zorraren nominala murriztea lehenetsiz).

Eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako tramiteak baliabide elektronikoz bidez egingo dira, eta laguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira. Laguntza horiek bateragarriak dira beste administrazio publiko batzuetatik edo entitate pribatuetatik xede bererako jaso daitezkeen beste edozein diru-laguntzarekin, laguntzarekin, diru-sarrerarekin edo baliabiderekkin, betiere diruz lagundu daitezkeen jarduketek gainfinantzaketarik ez badute.

## ERANSKINA - BARNEAN HARTZEN DIREN JESN-AK

\***Horiz** Errege Lege Dekretuan barnean hartzen direnak, zuriz Eusko Jaurlaritzak barnean hartu dituenak

JESN	IZENBURUA JESN-2009
0710	Burdin mineralen erauzketa
1052	Izozkiak egitea
1082	Kakaoa, txokolatea eta gozotegiko produktuen fabrikazioa
1083	Kafea, tea eta infusioak egitea
1101	Edari alkoholodunen distilazioa, errektifikazioa eta nahasketa
1102	Ardoa egitea
1103	Sagardoa eta frutatik eratorritako beste edari hartzitu batzuk egitea
1104	Distilatu gabeko eta hartziduratik eratorritako beste edari batzuk egitea
1105	Garagardoaren fabrikazioa
1106	Maltaren fabrikazioa
1107	Alkoholik gabeko edarien fabrikazioa; ur mineralen eta botilaratutako beste ur batzuen ekoizpena
1310	Ehun zuntzen prestakuntza eta irutea
1320	Ehun fabrikazioa
1330	Ehun akabera
1392	Ehunekin eratutako artikuluen fabrikazioa, janzkiak salbu
1396	Erabilera tekniko eta industrialeko beste ehun produktu batzuen fabrikazioa
1399	Beste inon sailkatu gabeko produktu batzuen fabrikazioa
1412	Laneko arropa egitea
1413	Kanpoko beste janzki batzuk egitea
1414	Barneko arropa egitea
1419	Beste janzki eta osagai batzuk egitea
1420	Larrugintzako artikuluen fabrikazioa
1439	Puntuko beste janzki batzuk egitea
1512	Larrukien, bidaietako artikuluen eta uhalgintza eta gerrikogintzako artikuluen fabrikazioa
1520	Oinetakoen fabrikazioa
1629	Egurrezko eta artelazkiko beste produktu batzuen fabrikazioa, saskigintza eta espartzugintza

1811	Arte grafikoak eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak
1812	Inprimaketako eta arte grafikoetako beste jarduera batzuk
1813	Aurreinprimaketako eta euskarriak prestatzeko zerbitzuak
1814	Koadernaketa eta horrekin zerikusia duten zerbitzuak
1820	Grabatutako euskarrien erreprodukzioa
2051	Lehergaien fabrikazioa
2441	Metal preziatuen ekoizpena
2670	Optikako baliabideen eta argazki ekipoen fabrikazioa
2731	Zuntz optikoko kableen fabrikazioa
3212	Bitxigintzako eta antzeko artikuluen fabrikazioa
3213	Imitaziozko bitxigintzako eta antzeko artikuluen fabrikazioa
3220	Musika tresnen fabrikazioa
3299	Beste inon sailkatu gabeko beste manufaktura industria batzuk
3316	Aeronautikako eta espazioko gaien konponketa eta mantentze-lanak
3530	Lurrin eta aire girotuaren hornidura
4511	Automobilen eta ibilgailu motordun arinen salmenta
4519	Beste ibilgailu motordun batzuen salmenta
4520	Ibilgailu motordunen mantentze-lanak eta konponketa
4531	Ibilgailu motordunen ordezkotako piezen eta osagarrien handizkako merkataritza
4532	Ibilgailu motordunen ordezkotako piezen eta osagarrien txikizkako merkataritza
4540	Motozikleten eta haien ordezkotako piezen eta osagarrien salmenta, mantentze-lana eta konponketa
4616	Ehungintzaren, janzkien, larrugintzaren, oinetakoen eta larruzko artikuluen merkataritzako bitartekariak
4617	Elikagaien, edarien eta tabakoaren merkataritzako bitartekariak
4618	Beste produktu zehatz batzuen salmentan espezializatutako merkataritzako bitartekariak
4619	Produktu ezberdinen merkataritzako bitartekariak
4622	Lore eta landareen handizkako merkataritza
4624	Larruen handizkako merkataritza
4634	Edarien handizkako merkataritza
4636	Azukrearen, txokolatearen eta gozoen handizkako merkataritza
4637	Kafearen, tearen, kakaoaren eta espezien handizkako merkataritza
4638	Arrainaren, itsaskien eta beste elikagai batzuen handizkako merkataritza
4639	Elikagaien, edarien eta tabakoaren espezializatu gabeko handizkako merkataritza
4641	Ehunen handizkako merkataritza
4642	Janzkien eta oinetakoen handizkako merkataritza
4644	Portzelanaren, beiren eta garbiketarako artikuluen handizkako merkataritza
4645	Lurrin eta kosmetika produktuen handizkako merkataritza
4647	Altzari, alfonbra eta argiztatzeko gailuen handizkako merkataritza
4648	Erlojugintzako eta bitxigintzako artikuluen handizkako merkataritza
4649	Etxean erabiltzeko beste artikuluen batzuen handizkako merkataritza
4664	Ehungintzarako makineriaren eta josteko eta trikotatzeko makinaren handizkako merkataritza

4665	Bulegoko altzarien handizkako merkataritza
4690	Espezializatu gabeko handizkako merkataritza
4711	Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan, elikagaiak, edariak eta tabako produktuak nagusi izanez
4719	Txikizkako beste salerosketa batzuk espezializatu gabeko establezimenduetan
4724	Ogi eta okindegi, gozo-denda eta gozotegietako produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4725	Edarien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4730	Ibilgailu industriarako erregaien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4741	Ordenagailuen, ekipo periferikoen eta informatikako programen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4743	Audio eta bideo ekipoen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4751	Ehunen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4752	Burindegiko gaien, margoen eta beiren txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4753	Alfonbren, moketen eta pareta eta zoruen estalduren txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4754	Etxetresna elektrikoen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4759	Altzarien, argiztatzeko gailuen eta etxean erabiltzeko beste artikulu batzuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4761	Liburuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4762	Egunkarien eta papergintzako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4763	Musika eta bideo grabazioen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4764	Kiroletarako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4765	Jolas eta jostailuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4771	Janzkien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4772	Oinetakoen eta larruzko artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4774	Osasun eta ortopediako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4775	Kosmetika eta higiene produktuen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4776	Loreen, landareen, hazien, ongarrien, lagun egiteko animalien eta horientzako elikagaien txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4777	Erlojugintzako eta bitxigintzako artikuluen txikizkako merkataritza establezimendu espezializatueta
4778	Artikulu berrien beste salerosketa batzuk establezimendu espezializatueta
4781	Elikagaien, edarien eta tabako produktuen txikizkako merkataritza salmenta postuetan eta azoka txikietan
4782	Ehun produktuen, janzkien eta oinetakoen txikizkako merkataritza salmenta postuetan eta azoka txikietan

4789	Beste produktu batzuen txikizkako merkataritza salmenta postuetan eta azoka txikietan
4799	Establezimenduetan, salmenta postuetan edota azoka txikietan egiten ez diren txikizkako beste salerosketa batzuk
4931	Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa
4932	Taxi bidezko garraioa
4939	Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk
4941	Salgaien garraioa errepidez
4942	Etxe-aldaketako zerbitzuak
5010	Bidaiarien itsas garraioa
5030	Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik
5110	Bidaiarien aireko garraioa
5210	Gordailatzea eta biltegitratzea
5221	Lurreko garraioarekin uztartutako jarduerak
5222	Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik egindakoari uztartutako jarduerak
5223	Aireko garraioarekin uztartutako jarduerak
5224	Salgaien manipulazioa
5229	Garraioarekin uztartutako beste jarduera batzuk
5510	Hotelak eta antzeko ostatuak
5520	Turismo ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk
5530	Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak
5590	Beste ostatu batzuk
5610	Jatetxeak eta janari postuak
5621	Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako
5629	Beste jaki zerbitzu batzuk
5630	Edari establezimenduak
5813	Egunkarien argitalpena
5814	Aldizkarien argitalpena
5912	Zinemako, bideoa eta telebista saioetako produkzio ondoko jarduerak
5914	Zinema erakusteko jarduerak
5915	Zinema eta bideoa produkzio jarduerak
5916	Telebista saioetako produkzio jarduerak
5917	Zinema eta bideoa banatzeko jarduerak
5918	Telebista saioak banatzeko jarduerak
5920	Soinua grabatzeko eta musika argitaratzeko jarduerak
7021	Harreman publikoak eta komunikazioa
7311	Publizitate agentziak
7312	Hedabideak ordezkatzeko zerbitzuak
7320	Merkatuko azterlanak eta iritzi publikoko inkestak egitea
7410	Diseinu espezializatuko jarduerak
7420	Argazkilaritzako jarduerak
7711	Automobilen eta ibilgailu motordun arinen alokairua

7712	Kamioien alokairua
7721	Aisialdi eta kirol artikuluen alokairua
7722	Bideo zinten eta diskoen alokairua
7729	Norberaren beste gauza batzuen eta etxean erabiltzeko artikuluen alokairua
7733	Makineria eta bulegoko ekipoen alokairua, ordenagailuak barne
7734	Nabigaziorako baliabideen alokairua
7735	Aireko garraiobideen alokairua
7739	Beste inon sailkatu gabeko beste makineria, ekipo eta ondasun ukigarrien alokairua
7911	Bidaia-agentzien jarduerak
7912	Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak
7990	Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak
8219	Fotokopiak egiteko eta dokumentuak prestatzeko jarduerak, eta bulegoko beste jardura espezializatu batzuk
8230	Batzarren eta erakustazoken antolaketa
8299	Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jardura batzuk
8551	Kirol eta aisialdi hezkuntza
8552	Kultura hezkuntza
8553	Gidatzen eta pilotatzen ikasteko eskolen jarduerak
8559	Beste inon sailkatu gabeko hezkuntza
8560	Hezkuntzari laguntzeko jarduerak
9001	Arte eszenikoak
9002	Arte eszenikoen jardura lagungarriak
9003	Sormen artistikoa eta literarioa
9004	Ekitaldi aretoen kudeaketa
9102	Museoetako jarduerak
9103	Toki eta eraikin historikoen kudeaketa
9104	Lorategi botanikoen, parke zoologikoen eta erreserba naturalen jarduerak
9200	Zori jokoaren eta apustuen jarduerak
9311	Kirol instalazioen kudeaketa
9312	Kirol klubuen jarduerak
9313	Gimnasioen jarduerak
9319	Beste kirol jardura batzuk
9321	Jolas parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak
9329	Beste aisialdi eta entretenitzeko jardura batzuk
9523	Oinetakoen eta larruzko artikuluen konponketa
9525	Ordulari eta bitxien konponketa
9529	Norberaren beste gauza batzuen eta etxean erabiltzeko artikuluen konponketa
9601	Ehun eta larru janzkien garbiketa eta ikuzketa
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk
9604	Mantentze fisikorako jarduerak



## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 44,2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ESKOLA-GARRAIOKO IBILBIDEEN KONTRATAZIORAKO

- **Datozen ikasturteetarako eskola-garraioko 484 ibilbide kontratatzeko lehiaketa publikoa irekiko du Hezkuntza Sailak**
- **Ikastetxe publikoetako 21.087 ikaslek erabili dute egunero Euskadin eskola-garraio zerbitzua 2020-2021 ikasturtean**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 44.258.171,70 euroko kopurua bideratzea Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako eskola-garraio zerbitzua kontratatzeko, datozen hilabeteetarako. Zehazki, 484 ibilbide lizitatuko dira.

Lizitatu beharreko ibilbide kopuru altua aintzat hartuta, eta enpresa txiki eta ertainen kontrataziorako sarbidea errazteko helburuz, lurralde historiko bakoitzeko kontratazio-espeditente bat lizitatuko da, era honetan banaturik:

- Araba: eskola-garraioko 140 ibilbide eskainiko dira lehiaketara, 10.344.620,88 euroko lizitazio-aurrekontuarekin.

- Gipuzkoa: guztira 145 ibilbide eskainiko dira lehiaketara, 15.885.361,80 euroko lizitazio-aurrekontuarekin.

- Bizkaia: eskola-garraioko 199 ibilbide eskainiko dira lehiaketara, 18.028.189,08 euroko lizitazio-aurrekontuarekin.

Ibilbide bakoitzak lote bat osatzen du (kontratu bat). Ezingo zaizkio 30 lote baino gehiago esleitu lizitazailerari. Kontratuek 20 hilabeteko iraupena izango dute, uztaila eta abuztua kontuan hartu gabe, eta luzatzeko aukera izango da.

Ibilbide hauen esleipenerako lehiaketan parte hartu nahi duten garraio enpresek, zerbitzua garatzeko beharrezko den administrazio-baimena izan beharko dute – Bidaiarien Errepideko Garraioari buruzko 4/2004 Legean aurreikusia-. Horrez gain, 443/2001 Errege Dekretuak eta 894/2002 Errege Dekretuak (aurrekoa aldatzen duenak) eskola-garraioko eta adin txikikoen garraiorako segurtasun baldintzei buruz ezartzen dituzten gutxienezko baldintzak ere bete beharko dituzte.

#### **21.087 ikasle garraiatu**

Eskola-garraioko zerbitzu osagarriak hezkuntzarako sarbidearen unibertsaltasuna bermatzen du. Hezkuntza Sailak kudeatzen duen eskola

garraioa erabiltzeko eskubidea dute bizilekutik ikastetxera 2 kilometro edo gehiagoko distantzia duten ikasleek, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan. Gutxieneko distantzia hori 4 kilometro edo gehiagokoa izan beharko da DBHko bigarren zikloan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan, eta 500 metrokoa besterik ez mugikortasun urriko ikasleen kasuan.

2020-2021 ikasturte honetan, ikastetxe publikoetan ikasten ari diren 21.087 ikasle garraiatu dira egunero Euskadin, orotara 259 ikastetxe publikori zerbitzua ematen dieten 581 ibilbideetan.

## Hezkuntza

### **IKASIKER, IKERKETA LANETAN LAGUNTZEKO BEKETARAKO DEIALDIA**

- **330.000 euroko zenbatekoarekin, 220 beka eskainiko ditu**
- **Beka jaso duten ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeetan, BERCetan, Ikerketa Sanitarioko Institutuetan edo Ikerketa Kooperatiboko zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beketarako deia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran.

Ikasiker beka unibertsitate ikasleei zuzenduak dira, ikasketekin aldi berean (2022ko urtarriletik irailaren 30era bitartean) honako ikerketa talde hauetan laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikertaldeetan, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI) edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentro teknologikoetan, betiere BRTA partzuergo zientifiko-teknologikoari atxikita badaude eta Eusko Jaurlaritzak onetsitakoak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa egiaztatutakoetan.

Programaren helburua da unibertsitate-ikasleek euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arloko lanetan lehen urratsak egitea. Aurtengo deialdi honetan beka kopurua handitu egin da: A modalitatean 15 beka gehiago izango dira eta B modalitatean 5 gehiago.

330.000 euroko diru-kopuruarekin, 220 beka eskainiko dira, honako modalitate hauetan:

- A modalitatea, ikasturtean zehar, 2022ko urtarriletik ekainera: 165 beka.
- B modalitatea, udan, 2022ko ekainetik irailera: 55 beka

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko graduko titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketa-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean edo Estatuko unibertsitate batean. Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetzaren proiektu bat aurkeztu, lankidetzaren hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

## Hezkuntza

### **169.600 EURO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA IKASTAROETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeetan irakasleentzat burutzen dituzten prestakuntza-jarduerak diruz laguntzen dituen Agindua. Prestakuntza-jarduera horiek 2021-2022 ikasturtean burutuak izan beharko dute.

Deialdi honek 169.600 euroko diru kopurua du. Ikastetxe bakoitzak jaso dezakeen dirulaguntzarik handiena 32.000 eurokoa izango da, hautatutako prestakuntza-jarduera guztiengatik. Deialdian parte hartu ahal izango dute, Euskadin Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxe pribatuek.

Laguntza hauek eskatzeko interesa duten ikastetxeek, eskaintzen dituzten heziketa-zikloekin zerikusia duten prestakuntza-jarduerak aurkeztu beharko dituzte deialdira. Prestakuntza-jarduera bakoitzak gutxienik 10 orduko iraupena izan beharko du, eta 35 ordukoa gehienez.

Hurrengo ikasturteari begira, besteak beste, honako arlo hauekin loturiko prestakuntza-jarduerak bultzatuko dira: lanbide-espezializazioko programak ematea; lanbide-orientazioa; metodologia aktibo-kolaboratiboak aplikatzea prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan; teknologia aurreratuak erabiltzea prozesu horietan eta edozein espezialitatetako irakasleen artean ekintzailtzaren kultura indartzen duten ekintzak; edo STEAM kultura. Beraz, irakasleek irakasgai horietako batean dituzten gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-ekintzek puntuazio handiagoa izango dute eskabideak baloratzean.

Honako gastu hauek ordaintzeko erabili beharko dira deialdi honen bidez jasotako laguntzak: ikastetxez kanpoko adituak kontratatzeak eragindako gastuak, edo prestakuntza-jardueretarako berariaz eskuratutako materialen gastuak ordaintzeko. Jasotako dirulaguntzak bateraezinak izango dira helburu berbera duten beste deialdi batzuetatik jasotako laguntzekin.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK GAIKOEN ETA HAIEN FAMILIEN KOLEKTIBOEN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO ETA OSASUNA SUSTATZEKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZEN AGINDUA ONARTU DU

- **Gaixoen eta haien familien kolektiboek osatutako irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzendutako laguntzetarako 300.000 euroko lerro bat onartu da**
- **Osasuna sustatzeko jarduerak egiteko dirulaguntzetara beste 250.000 euro gehiago bideratuko dira**

Garrantzi sozial handiko bi jarduera-ildotan aritzeko diru laguntzak arautzen dituzten Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren aginduak onartu ditu gaur Gobernu Kontseiluak. **Guztira 550.000 euro banatuko dira.**

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan gaixoek eta haien familiek osatutako irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkarteei zuzenduta dirulaguntzen deialdia egiten da. Elkarte horiek **gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzera bideratuta egongo dira.** Dirulaguntzaren zenbatekoa 300.000 eurokoa izango da guztira.

Honako helburu hauek dituzten jarduerak finantzatuko dira: gaixoek bere burua zaintzeko gaitasuna eta autonomia areagotzeko trebetasunak eta baliabideak garatzen laguntzeko jarduerak; osasuna sustatzeko ikuspegitik, beraien behar soziosanitarioak laguntzeko eta bideratzeko jarduerak; gaixotasunari buruzko, haren arrisku-faktoreei buruzko eta osasun-jokabide egokienei buruzko ezagutza eta informazioa areagotzeko jarduerak; eta, eragindako pertsonen osasun-desberdintasunak murrizteko eta genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak.

Beste alde batetik, , halaber, 2021 urtean Euskal Autonomia Erkidegoko toki-eremuan **osasuna sustatzeko jarduerak** egiteko diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartu egiten dira, Dirulaguntzaren zenbatekoa 250.000 eurokoa izango da guztira.

Komunitatean parte hartzeko prozesuak sortzera eta/edo dinamizatzen bideratutako jarduerak eta osasuna lehenesteko, planifikatzeko eta garatzeko sustatzera bideratutako ekintzak eta estrategiak finantzatuko dira. Horretaz gain, osasuna sustatzera bideratutako eta komunitatearen beharrei, nahiei, arazoei edo intereseko gaiei erantzuten dieten jarduerak ere finantzatuko dira.

Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira eta epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 290.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DU EUSKAL KULTURA-ONDAREA KATALOGATZEKO, DIGITALIZATZEKO, KONTSERBATZEKO ETA ZABALTZEKO**

Euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko Gobernu Kontseiluak gaur onartu dituen diru-laguntzen helburua da euskal kultura-ondarearen deskribapena eta digitalizazioa sustatzea, ondoren OAI-PMH protokoloa (The Open Archives Initiative-Protocolo for Metadata Harvesting) ezarrita duten gordailuen bidez zabaltzeko. Protokolo horrek gaur egun dauden digitalizazio-proiektu nagusien arteko elkarreragingarritasun-estandarrek garatu eta sustatzen ditu, eta Interneteko edukien hedapen eraginkorra errazten du. Bai deskribapenean, bai digitalizazioan, Europeana-kultura-ondare digitalizatuaren Europako atariak estandarizatu eta finkatutako ereduak erabilera sustatzen da.

Gaur onartutako dirulaguntzek 290.000 euroko partida dute euskal funts analogikoak baliabide digital estandarizatu bihurtzeko. Diruz lagundu ahal izango dira euskal kultura-ondarea osatzen duten kultura-baliabideak katalogatzeko, digitalizatzeko edo digitalizatzeko eta katalogatzeko proiektuak, hala nola argazkiak, grabatuak, marrazkiak, ikus-entzunezko materiala, mapak, planoak, kartelak, prentsa, funts bibliografikoak eta dokumentu-funts historikoak.

lazko deialdian 28 proiektu lagundu ziren diruz, besteak beste, Getxoko liburategietako tokiko bibliografia-funtsa digitalizatzea, Euskal Dantzarien Biltzarreko funtsak katalogatzea eta digitalizatzea, Eresbileko dokumentu-funtseko dokumentuak digitalizatzea eta deskribatzea eta Argiako argazki-artxiboa katalogatzea.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL CONSEJO DE GOBIERNO DA LUZ VERDE A LA PROPOSICIÓN DE LEY DE PROTECCIÓN DE LOS ANIMALES DE COMPAÑÍA

- **La norma establece las obligaciones de las personas propietarias y fija el papel de las instituciones públicas en cuanto a la custodia de animales**

El Consejo de Gobierno ha manifestado hoy su criterio favorable a la toma en consideración de la Proposición de Ley de Protección de los animales de compañía porque actualiza y mejora la ley vigente y da respuesta a las demandas sociales, situando a Euskadi a la cabeza de las sociedades europeas más avanzadas en materia de respeto y protección hacia los animales de compañía y hacia el buen trato de todos los animales.

En la reunión semanal celebrada en Gasteiz, el Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la toma en consideración de la iniciativa que delimita los animales objeto de la ley: los animales de compañía, excluyendo los de producción y renta y aquellos que tienen reglamentación propia. En este sentido, la Proposición de Ley establece las obligaciones de las personas propietarias de animales de compañía e instaura un marco sancionador específico. Además, promueve acciones encaminadas a la educación y sensibilización de la ciudadanía en torno al respeto y protección debidos a los animales.

La norma también hace referencia al papel de las instituciones públicas en cuanto a la custodia de animales, no posibilitando el sacrificio de animales en los centros de recogida. Asimismo, prevé la promoción de una gobernanza reforzada, colaborativa y equilibrada entre las entidades públicas, principalmente ayuntamientos y Diputaciones Forales, para atender las obligaciones señaladas por la Ley.

El abandono de los animales de compañía está también previsto en la Proposición de Ley, que prevé un seguimiento y sanciones en caso de incurrir en esta práctica. También incluye la delimitación de los requisitos y condiciones de los distintos núcleos zoológicos, tanto públicos como privados, y otorga un papel relevante al colectivo de profesionales veterinarios y veterinarias.

La Proposición de Ley incluye varios aspectos novedosos en cuanto a la defensa de los animales, entre otros, la obligatoriedad de identificación y registro, la prohibición de exhibición de estos animales en espectáculos circenses y de ferias o la prohibición de exposición de mascotas en escaparates comerciales. Asimismo, prevé la obligatoriedad de que los ayuntamientos dispongan de espacios adecuados de disfrute para los animales.

## Economía y Hacienda

### **LAS AYUDAS DIRECTAS A SECTORES AFECTADOS POR LA COVID-19 EN EUSKADI ASCIENDEN A CERCA DE 270M/€ Y CUBRIRÁN 173 ACTIVIDADES ECONÓMICAS**

